



### Lana / La obra

1936ko irailean, gerrak Euskal Herria erdibitu du. Erretagoardian, Bilbo ustezko barealdian bizi da. Ekaitza urrun dago.

Eta, hala ere, hiriko kaleetan bestelako gerra dabil, ezkutua eta isila, erreboltarien zaleek borrokatzen dutena. Hauetako bat da Wilhelm Wakonigg, Austrian jaiotako negozio gizon eta kontsul ohia. Bilboko hainbat eskuindar, falangista eta monarkikori ihes egiten lagundu ondoren, Wakoniggek espioi sare batek osatuko du Bilbo inguruko defentsa eta errekurtsio buruzko informazioa bildu eta Franco eta Mola jeneralen indarrei helarazteko asmoz.

Gabino gazte galdakoztarra euskal polizia-indar berrian onartua izan da. Getxoko Nazioarteko Eremura bidalia, han Wakoniggen espioi lagunaren joan-etorriak zaindu beharko ditu eta beraien asmoak eragozten saiatuko da, eginkizunean bizitza eta maitasunari buruzko saminak ezagutuz eta, aldi berean, Euskal Herriaren historiako aldi garrantzitsu baten partaidea izango delarik.

### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Ekaitza urrun**

Egilea / Autor: **Joanes Urkixo**

Saila / Colección: Narratiba, 111

ISBN / EAN: 978-84-9109-310-7

Salneurria / Precio: 18 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / Nº páginas: 264

Formatua / Formato: 15 x 22 cm



### Egilea / El autor

**Joanes Urkixo** (Bilbo, 1955). Euskal Filologian lizentziatua da, lanbidez idazle eta gidoigilea.

Gidoigintzan 30 urteko ibilbidea egin ondoren, era guztietako lanak idatzi ditu: dokumentalak, entretenimendu-saioak, haurrentzakoak, publizitatea, bideo korporatiboa, komikia... Esperientziarik zabalena, hala ere, fikziozko arloan bereganatu du, sit-comak, animaziozko telesailak eta film luzeak idatzi dituelarik. Azken hauen artean *Goomer* (Animaziozko Goya Saria 2000), *Cristóbal Molón* (2006), *Querida Bamako* (Cubako Cine Pobre Zinemaldiko Saria 2007) edo *Lasa eta Zabala* (2014) aipa daitezke.

Idazle lanetan, 1978-80 urteetan hasi zen, Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde eta Joseba Sarrionaindiaren Pott bandaren aldizkarietan kolaboratuz. 1983 urtean *Ttu-ttua* literatur aldizkaria sortu zuen Laura Mintegirekin batera eta, aldi berean, hainbat egunkari eta aldizkaritan idatzi zuen.

Lehen liburua (*Eta beharbada ispilu beltz bat*) 1982 urtean argitaratu zuen, eta segidan, *Elur gainean* (Erein, 1984) narrazio bilduma. Harrezkero, 20tik gora lan argitaratu ditu, horietatik asko haur eta gazteentzat: *Patxi Trumoik letrak ikasi nahi ditu*, *Thule*, *Bihotz Ausarta*, *Gerlari Zuria* eta abar.

Zenbait literatur sari ere eskuratu ditu, bereziki aipagarriak hauexek: 1983 urtean, Eusko Jaur-laritzaren "Kirikiño" narrazio labur saria. 1997 urtean, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren beka. 2003 urtean, Apirila Saria, *Gerlari Zuria* eleberriarekin.